

**Beste behin konpromisoa erakutsi du tokiko produktuen alde**

## **EROSKI ETA EUSKAL EKOIZLEAK PROIEKTU BAT LANTZEN ARI DIRA BARATZEGINTZAREN ERRENTAGARRITASUNA HOBETZEKO**

- Planak 24 hilabete iraungo du, eta laguntzak jasoko ditu Eusko Jaurlaritzatik eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik
- Labore berriak dibertsifikatzea eta era iraunkorrean lantzea dira ekimen horren ardatz nagusiak
- Tokiko ekoizleekin jardutea da EROSKIren politika komertzialaren bereizgarrietako bat. Nekazaritzako elikagaien sektorea bultzatzen du hala, haren ekoizpen ehuna dibertsifikatuta, hori giltzarrizkoa delakoan haren iraunkortasunerako eta enpleguari, ekonomiari, kulturari eta paisaiari laguntzeko

Elorrio, 2019ko ekainaren 21a.- [EROSKI](#) proiektu bat gidatzen ari da Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizleekin, baratze gintzak hemen duen errentagarritasuna hobetzeko, nola eta hura dibertsifikatuta eta labore berriak era iraunkorrean landuta. Planaren izena *Plan Hortaliza: Diversificación Sostenible Colaborativa* da, eta 24 hilabete iraungo du; gainera, laguntzak jasoko ditu Eusko Jaurlaritzatik eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik.

Kooperatibak iaz jarri zuen martxan proiektu hori, Durangaldean, eta Ezkerraldera eta Gasteizera hedatu du dagoeneko ekimena; laster, gainera, Uribe Kostako, Txorierriko eta Bilboko eskualdeei helduko die.

Planaren zutabeetako bat eskaintzaren dibertsifikazioa da; izan ere, kontua ez da gaur egun ekoizten dena saltzea, baizik eta denboraren joanarekin alhora laga diren ekoizpenak berreskuratzea eta saltzeko interesgarriak izan daitezkeen labore berriak sartzea baldin ikuspegi agronomikotik ekoizteko modukoak badira.

*"Berrikuntza aintzat hartzen du proiektu honek, alderdi askotatik, eta lana antolatzeke era berriak dakartza, era kolaboratiboak lehiakideekin eta bezeroekin; horrek, hala, ekoizpen bide berriak ekarriko ditu, eta merkatuan produktu berriak sartzeko balioko du",* esan du EROSKIren tokiko Ekoizpenetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

Proiektuan, bazkide gisa ari dira Neiker Tecnalia, Barrenetxe kooperatiba eta Lapikote baserria, baita Azkarrena SC eta Iñaki Azkoaga ere kolaboratzaile gisa.

---

### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA**

#### **CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Lau fase ditu proiektuak, eta bata bestearen atzetik landuko dira: laboreak identifikatzea, laboreen ezaugarriak deskribatzea, landa probak diseinatzea eta gauzatzea eta aldaeren ezaugarritze sistemaren deskripzioa eta zabalpena.

Proiektuan laguntzen ari diren bazkide guztiek eskarmentu handia dute bakoitzak beren arloan, eta proiektuaren zerbitzura jarriko dute eskarmentu hori balio katearen askotariko etapetan barrena. EROSKIri dagokionez, proiektua gidatu ez ezik, Kudeaketa Batzordea zuzentzen du, eta haren ardura da, halaber, aldaeren ezaugarritze probak egiteko behar diren laboreak identifikatzea, aztertutako aldaerak kategorietan jartzea eta metodologia hedatzea, beste ekoizpen talde batzuetan ezarria izan dadin.

### **Tokian-tokian babesa ematea nekazaritza arloko elikagaien sektoreari**

Kooperatiba bere dendetan bultzatzen ari den Zurekin ereduak asko laguntzen du tokiko nekazaritzaren ekoizpen ehuna dibertsifikatzen, bai eta sektorea iraunarazten eta denda guztien ingurune hurbileko ekonomia, kultura eta paisaia indartzen ere. Euskal Autonomia Erkidegoan, nekazaritzako elikagaien 300 ekoizle txikirekin dihardu EROSKI 2.000 produktu baino gehiago saltzen. Erosketak egiten dizkie epe erdiko eta luzeko akordioen bitartez, eta horrek egonkortasuna dakarkio nekazaritzako elikagaien sektore iraunkor eta oso dibertsifikatu bati. EAEko sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta 650 milioi eurotik gorako erosketak egiten dizkie urtero.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)